

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4. MAILA
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	BALIO ETIKOAK		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	BALIO ETIKOAK		
diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Kompetentzia sozial eta zibikoa.		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Naiara Rubio Arroyuelos	ikasturtea: <i>curso:</i>	2022-2023

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarrituta, herritarren eta estatuaren arteko harremanak arautu behar dituzten printzipioak azaltzea, giza eskubideen betetzea ezinbestekoa dela azpimarratuz, gizartean haien gauzapena sustatzeko.	1. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarrituta, herritarren eta estatuaren arteko harremanak arautu behar dituzten printzipioak azaltzea, giza eskubideen betetzea ezinbestekoa dela azpimarratuz. 1.1- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak agertzen dituen artikuluek ezarritakoaren arabera, giza eskubideak azaltzen ditu.

<p>2. Bigarren modernitateari buruzko interpretazioak ezagutzea, haren ezaugarriak nabarmenduz, garai aldaketa ulertu eta beren bizitza-proiektua eraikitzen jakiteko.</p> <p>3. Sozializazio globala zer den eta komunikabide globalekin zer lotura duen azaltzea, pertsonen, gizartearen eta bizitzan eta garapen moralean zein eragin duen aztertuz, etikak globalizazioaren garaietan zein zeregin izan behar duen hausnartzeko.</p>	<p>1.2- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak Estatuari 18.-21. artikuluetan ezartzen dizkion mugak azaltzen ditu. Zehazkiago, Estatuak herritarrei babestu eta errespetatu beharreko askatasunak jaso dira artikuluen horietan.</p> <p>1.3- Herritarrek beren eskubide eta betebeharren berri izateak eta haiek betetzeak demokraziarako eta justiziarako duen garrantzia aintzat hartzen du.</p> <p>2. Bigarren modernitateari buruzko interpretazioak ezagutzea, haren ezaugarriak nabarmenduz.</p> <p>2.1- Bigarren modernitateari dagokionez, zenbait interpretazio edota proposamen ezagutzen ditu.</p> <p>3. Sozializazio globala zer den eta komunikabide globalekin zer lotura duen azaltzea, pertsonen, gizartearen eta bizitzan eta garapen moralean zein eragin duen aztertuz.</p> <p>3.1- Hainbat balio, arau, ohitura eta abar barneratzea dakarren sozializazio globaleko prozesua deskribatzen eta ebaluatzen du.</p> <p>3.2- Sozializazio globaleko fenomenoak balio etiko kosmopolitetatik aparte garatzeak dakartzan arriskuak aipatzen ditu, gai horretan muga etiko eta juridikoak ezarri behar diren inguruan eztabaidatuz.</p> <p>3.3- Komunikabide globalek pertsonen eta gizartearen bizitza moralean duten inpaktuaren inguruan hitz egiten du, bere iritziak zorrotasun intelektualez emanez.</p> <p>3.4- Komunikabide handien erabilerari dagokionez erregulazio etiko eta juridiko bat ezarri beharra hartzen du aintzat, herritarren informaziorako eta adierazpen-askatasunerako eskubidea errespetatuz.</p> <p>3.5- Taldean, erregulazio etiko eta politiko bat ezarri ezean globalizazioaren fenomenoak gizakiarentzat ekar ditzakeen ondorioei (bizitzaren kontrola galtzea, egozentrismo soziala, desberdintasunak, interdependentzia, gatazka armatuak nazioartekotzea,</p>
--	---

<p>4. Munduan giza ekintzaren arlo berriak etikoki arautzea ezinbestekoa dela adieraztea, arlo desberdinetan mugak jartzeko beharra azpimarratuz, giza eskubideak betetzen direla bermatzeko.</p> <p>5. Teoria etikoak helburuen etika eta prozedurazko etika deritzenetan banatzen direla jakitea eta horiek zein balio azpimarratzen dituzten ezagutzea, adibide desberdinak emanez, arau etiko justuak eratzearen garrantziaz jabetzeko.</p>	<p>eta kontsumismoa eta giza askatasunaren galera sustatzen duten interes ekonomikoek baldintzatutako kultura-ereduen inposizioa, besteak beste) buruz hitz egiten du eta gogoeta egiten du.</p> <p>4. Munduan giza ekintzaren arlo berriak etikoki arautzea ezinbestekoa dela adieraztea, arlo desberdinetan mugak jartzeko beharra azpimarratuz.</p> <p>4.1- Arrazionaltasunez justifikatzen eta aintzat hartzen du hausnarketa etikoa garrantzitsua dela XXI. mendean, giza eskubideak babesteko interes politiko eta ekonomiko handiek eta Estatu eta talde biolentoei ekar dezaketen arriskuaren aurrean, kontuan hartuta maila zientifiko eta teknologiko handiko armak daukatela eskura, eta, horrenbestez, pertsonen funtsezko eskubideak benetan kolokan jar ditzaketela.</p> <p>4.2- Etika zer arlo berritan aplikatu beharko litzatekeen adierazten du, besteak beste, profesionalean, bioetikan, ingurumenean, ekonomian, enpresan, zientzian eta teknologian, besteak beste.</p> <p>5. Teoria etikoak helburuen etika eta prozedurazko etika deritzenetan banatzen direla jakitea eta horiek zein balio azpimarratzen dituzten ezagutzea, adibide desberdinak emanez.</p> <p>5.1- Etika formalen eta etika materialen bereizgarriak definitzen ditu.</p> <p>5.2- Prozedurazko etiken bereizgarri batzuk aipatzen ditu, eta haietako batzuen funtsezko elementuak azaltzen ditu (Kanten etika formala, Habermasen diskurtsoaren etika).</p> <p>5.3- Epikuroren teoria hedonistaren eta hark defendatzen dituen balio etikoen funtsezko alderdiak aipatzen ditu, xede-etika bat dela egiaztatzen duten ezaugarriak nabarmenduz.</p> <p>5.4- Eudemonismo aristotelikoaren alderdi nagusiak deskribatzen ditu, xede-etikatzat jotzen du eta gaur egun indarrean dagoela aintzat hartzen du.</p> <p>5.5- Etika utilistaren elementu esanguratsuenetako</p>
---	--

<p>6. Gaur egungo munduko gizarte-arazo nagusiak (pobrezia, herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak, gerrak, demografia, degradazio ekologikoa, espezieak desagertzea, etab.) zerk eragiten dituen aztertzea, komunikabideek ematen duten informazioa modu kritikoan aztertuz, era honetan oreka sozial eta bizimodu justuagoa lortzeko, hau da, mundu bidezkoago eta solidarioago bat.</p> <p>7. Giza eskubideen eta legalitatearen arteko loturaz ohartzea, lotura hori egungo gizarteetan islatzen ote den hausnartuz eta hala ez bada, desobedientzia zibilaren edota kontzientzia</p>	<p>batzuk deskribatzen ditu, xede-etika den heinean, eta Epikuroren hedonismoarekin konparatzen du.</p> <p>5.6- Planeamendu etiko desberdinen inguruan duen balioespen pertsonala babesteko argudio arrazionalak lantzen ditu.</p> <p>5.7- Habermasen diskurtsoaren etika oinarrian hartuz, elkarrizketa eta adostasuna aplikatzen ditu dilema moralen deliberazioan.</p> <p>5.8- Bere ekimenez eta ekintzaile-senaz, teoria etiko desberdinen inguruko aurkezpena egiten du euskarri informatikoaren laguntzarekin.</p> <p>6. Gaur egungo munduko gizarte-arazo nagusiak (pobrezia, herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak, gerrak, demografia, degradazio ekologikoa, espezieak desagertzea, etab.) zerk eragiten dituen aztertzea, komunikabideek ematen duten informazioa modu kritikoan aztertuz.</p> <p>6.1- Munduko gizarte-arazoei buruzko informazioa, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei eta emakumeen aurkako indarkeriak sortzen dituen arazoei buruzkoak barne, biltzen du.</p> <p>6.2- Informazio horretatik abiatuta, gizarte-arazoen kausetako batzuk identifikatzen ditu.</p> <p>6.3- Begirada kosmopolita aplikatzen du kausak aztertu eta konponbideak proposatzeko.</p> <p>6.4- Garapen jasangarriaren ideia (norbanakoaren bizitzan eta gizartearen oro har) gizarte- arazo horien konponbidearekin lotzen du.</p> <p>6.5- Munduko gizarte-arazoen konponbidean gobernuek eta gizarte-eragileek betetzen duten zeregina etikoki balioesten du.</p> <p>7. Giza eskubideen eta legalitatearen arteko loturaz ohartzea, lotura hori egungo gizarteetan islatzen den hausnartuz eta hala ez bada, desobedientzia zibilaren edota kontzientzia eragozpenaren aukeraz iritziak arrazionaltasunez argudiatuz.</p>
--	---

eragozpenaren aukeraz iritziak arrazionaltasunez argudiatuz, legeak giza eskubideak bermatzeko beharrezkoak direla ohartzeko.

8. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ukaezinezkoa dela jakitea eta horien alde egiten duten erakundeen berri izatea, betiere errealitatean ematen diren urraketa kasuak kontutan hartuz, giza eskubideak betetzearen garrantziaz jabetzeko.

9. Giza eskubideen urraketa biktimitateko sentikorra izatea, haiekiko elkartasuna, enpatia eta hurbiltasuna adieraziz, bizikidetzaren duina bultzatzeko; egungo eta iraganeko egoera

7.1- Legeen xedea, ezaugarriak eta justifikazio etikoa azaltzen du, haien legitimitatearen eta obediencia oinarria den heinean.

7.2- Historian gertaturiko desobediencia zibil edota kontzientzia eragozpen kasuak ezagutzen ditu eta kasu horien zilegitasunaz mintzo da, gai honen inguruan duen iritzia plazaratuz.

8. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ukaezinezkoa dela jakitea eta horien alde egiten duten erakundeen berri izatea, betiere errealitatean ematen diren urraketa kasuak kontutan hartuz.

8.1- Arrazionalki justifikatzen du giza eskubideak oso garrantzitsuak direla gizarte eta Estatuak lortu beharreko idealak diren neurrian.

8.2- Oraindik ere gainditzeke dauden erronkak deskribatzen ditu.

8.3- Eskubide ekonomikoak baliatzean indarrean dauden gabeziak batzuk aipatzen ditu, esate baterako pobrezia; hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza eskuratzeko ezintasuna etab.

8.4- Giza Eskubideekin bat datozen zenbait neurri proposatzen ditu gabezia horiek arintzeko.

8.5- Mundu osoan Giza Eskubideen defentsaren eta errespetuaren alde lanean diharduten erakunde eta boluntarioen zenbait adibide zehatz aipatzeko gai da, hala nola, NBE eta haren mendeko erakundeak, besteak beste, FAO, EANA (Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia), OME (Osasunaren Mundu Erakundea), UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea), eta hainbat GKE, hala nola Greenpeace, UNICEF, Ilargi Gorria eta abar, baita Nazioarteko Auzitegia eta Europar Batasuneko Auzitegia, besteak beste.

9. Giza eskubideen urraketa biktimitateko sentikorra izatea, haiekiko elkartasuna, enpatia eta hurbiltasuna adieraziz.

9.1- Hainbat biktimitatearen adierazpenen berri izan du

<p>injustuak identifikatu eta berriro ez errepikatzen.</p>	<p>komunikabideen eta Interneten bitartez.</p> <p>9.2- Injustizia eta biktimen eta biktimen familien sufrimendua zer den badaki.</p> <p>9.3- Biktimaren tokian jartzen da, eta jasandako erasoak haren bizitzan duen inpaktu suntsitzailea irudika dezake.</p> <p>9.4- Biktimekiko elkartasuna sentitzen du, haien artean diskriminaziorik egin gabe eta biktima batzuk beste biktima batzuekin justifikatu gabe.</p> <p>9.5- Ondorioak ateratzen ditu biktima guztiei dagokien egiarako, justiziarako eta erreparazioarako eskubidearen inguruan.</p> <p>9.6- Giza Eskubideen nazioarteko erakundeetara jotzen du biktimei buruzko informazioa bilatu eta biltzeko.</p> <p>9.7- Ondorioak ateratzen ditu biktimei jasandako mina erreparatzeko moduaren inguruan.</p>
<p>10. Proiektu zientifikoak eta teknologikoak zenbait kasutan mugatu beharrekoak direla ohartzea, bioetikaren egitekoa azpimarratuz, giza eskubideak eta gizateriaren balio etikoak errespetatzen dituztela bermatzeko.</p>	<p>10. Proiektu zientifikoak eta teknologikoak zenbait kasutan mugatu beharrekoak direla ohartzea, bioetikaren egitekoa azpimarratuz.</p> <p>10.1- Informazioa hautatu eta erabiltzen du proiektu zientifiko eta teknologikoen bideragarritasuna aintzat hartzeko kontuan hartu beharreko irizpide batzuk aurkitzeko, lortu beharreko helburuen egokitasun etikoa eta haien aplikazioak izan ditzakeen arrisku eta ondorio pertsonal, sozial eta ingurumenekoak ebaluatu beharra kontuan hartuz.</p> <p>10.2- Zientifiko, teknologo eta beste hainbat profesionali etika deontologiko bat betearazi behar diren inguruan eztabaidatzen du.</p> <p>10.3- Lan-, finantza- eta enpresa-munduan balio etikoen aplikazioa positiboa dela uste du.</p>
<p>11. Elkarrizketa filosofikoa zer den jakitea, gai etiko desberdinen inguruko eztabaida filosofiko desberdinetan parte hartuz, filosofiaren alderdi praktikoaz jabetzeko.</p>	<p>11. Elkarrizketa filosofikoa zer den jakitea, gai etiko desberdinen inguruko eztabaida filosofiko desberdinetan parte hartuz.</p> <p>11.1- Ikasgelan proposaturiko elkarrizketa</p>

desberdinetan ekimenez parte hartzen du, arazo filosofiko desberdinen inguruan duen ikuskera adieraziz.

11.2- Haren iritziak sostengatzeko argudio koherenteak eta gaiarekin bat datozenak ematen ditu.

AZARO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errelebanteenak agertuko dira].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones].

LEHENENGO ARAZO EGOERA: Hau dut hau buruhaustea!

- **Testuingurua:** Eguneroko bizitzan, jendeari zein geure jokabideei buruzko balorazioak etengabe egiten ditugu. Norberak egindakoen arrazoietan eta ondorioetan pentsatzea ere ohikoa da. Askotan egiten dugu topo dilema moralekin eta ez dugu jakiten nola jokatu, hau da, zailtasunak izaten ditugu geure buruari zein agindu eman behar dizkiogun edota geure ekintzen oinarrian zein balio izan behar ditugun jakiteko.
- **Arazoa:** Badago teoriarik nola jokatu behar dugun esaten diguna? Edota geure ekintzetan kontutan hartu beharreko balioak, eta geure buruari eman beharreko aginduak hautatzen laguntzeko? Zeintzuk dira teoria horiek? Zer esaten digute?
- **Eginkizuna:** Taldetan teoria etiko desberdinen inguruko posterrak egitea, etika eudemonistak eta justiziaren etikak bereiztuz. Ondoren, teoria etiko desberdinen txostena gauzatuko dugu.

BIGARREN ARAZO EGOERA: Norbere gizartea diseinatzen.

- **Testuingurua:** Ingurura begiratzan baldin badugu, giza eskubideen urraketa kasuekin egingo dugu topo nahi baino gehiagotan. TB piztea edota egunkaria irakurtzea besterik ez dago halako ekintzekin topo egiteko. Gizakia gizakiarentzat otsoa dela zioen Hobbesek eta hortaz, harek pentsatzen zuen, berekoikeriak bultzatuta, gizaki bakoitzak haren eskubideen alde egiten duela. Honi mugarik jartzen ez baldin bazaio, ez dirudi kontu erraza guztion eskubideak bermatzea.
- **Arazoa:** Hasieratik gizarte bat sortu beharko bazenute nolakoa litzateke gizarte hori? Zer nolako eskubideak bermatu beharko lirateke zuen gizarte idealean? Mugarik jarri beharko litzateke eskubide horietako batzuei?
- **Eginkizuna:** Taldetan beraien gizartea diseinatzeari ekingo diote ikasleek. Horretarako, bi sobre izango dituzte: pertsonaien sobrea eta eskubideen sobrea. Ikasle bakoitzari pertsonai bat (aberatsa, txiroa, langilea, iraultzailea, agurea) egokituko zaio ausaz. Hala, pertsonai horren ezaugarriak irakurri eta barneratu beharko ditu ikasle bakoitzak eta dinamika osoan zehar egokitu zaion pertsonaiaren interesak defendatu beharko ditu. Bestetik, banan-banan aterako dituzte eskubideen txartelak sobretik: bizitzarako eskubidea, askatasunerako eskubidea, berdintasunerako eskubidea eta jabetza pribaturako eskubidea. Ildo horretatik, eskubide horiek horien gizarretan nola ordenatu, erregulatu, babestu eta mugatuko dituzten erabaki beharko dute. Talde bakoitzak plantilla bat izango du bere erantzunak idazteko. Ondoren, John Rawls-en ez-jakintasunaren estalkia jantzita gauzatuko dute berriz ere jarduera. Bukatzeko, disertazio

pertsonala idatzi beharko dute ikasleek ondorengo hiru galderak kontutan hartuz:

- 1) Nola ordenatuko zenituzke eskubideak garrantziaren arabera zeure gizartean ?
- 2) Nola mugatuko zenituzke eskubide horiek? Esaterako, mugatu beharko litzateke askatasun eskubidea?
- 3) Nola gobernatuko duzue? Zer egingo duzue eskubide bakoitza bete dadin?

HIRUGARREN ARAZO EGOERA: Pentsa dezagun egungo munduaz.

- **Testuingurua:** Duela hamarkada gutxi arte, estatu-nazioa deritzoguna zen erreferentziazko politika-esparrua. Mundua herrialde independentetan banatuta zegoen, eta herrialdeek muga zorrotzak zituzten, bai eta sistema ekonomiko eta politiko oso desberdinak ere. Egoera horretan, Mendebaldeko herrialdeetako bizimoduak ez zuen ia zerikusirik bloke komunistako herrialdeetan edo Asiako nahiz Afrikako eremu gehienetan bizi zutenarekin. Azken hogeita hamar urteetan, ordea, munduaren integrazio-prozesu bat gertatu da, ekonomia-, gizarte- eta kultura-arloetan: globalizazioa. Horrek eragin nabarmena du egungo bizimoduan. Esaterako, egun posible da mota guztietako produktuak oso prezio baxuan eskuratzea, *low cost* deritzona, alegia. Eta horrek txanponaren bi aldeez hausnartzera garamatza.
- **Arazoa:** Zertan da orain mundua desberdin? Zer da globalizazioa? Zein onura eta kalte ekarri dizkigu? Nola bideratu eta mugatu ditzakegu horiek?
- **Eginkizuna:** Egungo globalizazio prozesuari buruzko idatzizko disertazioa edota argudiatzea lantzea. Disertazioa egiteko ondorengo urratsak jarraitzea lagungarri suertatuko zaie ikasleei:
 - 1) Globalizazio kontzeptua definitu.
 - 2) Globalizazioaren ondorioak (onuragarriak, zein kaltegarriak) zerrendatu.
 - 3) Ondorio onuragarrien, zein kaltegarrien adibideak eman.
 - 4) Azaldu, argudioak emanez, ea globalizazioaren eragin onuragarriak edo ondorio kaltegarriak diren garrantzitsuenak. Saiatu argudioak argi eta zehatz adierazten.
 - 5) Proposatuz globalizazioak pertsonengan sortzen dituen ondorio kaltegarriak arintzeko edo ezerezteko irtenbideak. Saiatu irtenbide hauek zehatzak eta errealistak izan daitezen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Or. 11	1. EBALUAZIOA	Or. 11	2. EBALUAZIOA	Or. 10	3. EBALUAZIOA
5 or.	<p>1.UD: ETIKAREN GARRANTZIA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etikaren definizioa gogora ekartzen. • Zertarako balio du etikak? • Etikaren garrantzia eta erronkak. 	5 or.	<p>3.UD: GIZA ESKUBIDEAK.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Giza duintasunaren kontzeptua. • Duintasuna, geure eskubideen oinarri. • Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. • Eskubideetatik betebeharrak. 	6 or.	<p>5.UD: PENTSA DEZAGUN EGUNGO MUNDUAZ.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Globalizazioa. • Globalizazioaren onura eta kalteak. • Kalteei irtenbide posibleak. • Internet eta sare sozialen arriskuak. Narcisoren kondaira.
6 or.	<p>2.UD: HAU DUT HAU BURUHAUSTEA!</p> <ul style="list-style-type: none"> • Badago teoriarik nola jokatu hausnartzen laguntzen diguna? • Etika materialak vs. etika formalak (helburuen etikak eta prozedurazko etikak). • Teoria etikoak. Eudemonismoa, hedonismoa, utilitarismoa, Kanten etika formala eta Habermasen etika dialogikoa. • Kasu desberdinen azterzea teoria etiko desberdinetan oinarrituta. 	6 or.	<p>4.UD: GIZARTEA ETA JUSTIZIA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Balio etikoak: gizartean bizi ahal izateko baldintza. Thomas Hobbes eta presoaren dilema. • Justiziaren kontzeptua. Giges-en eraztuna (Platon). • Justiziari buruzko John Rawls-en teoria. Ez-jakintasunaren estalkia. • Legea eta moralak ez datoz beti bat. Desobentzia zibila eta kontzientzia-objektzioa. Antigonaren kondaira. 	4 or.	<p>6.UD: ETIKA, ZIENTZIA, TEKNIKA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Muga etikoak izan beharko lituzkete zientziak eta teknikak? • Etika deontologiko baterantz. Kode deontologiko baten beharra. • Etikaren eginkizuna merkatu-gizartean. • Komunikabideak: objektibotasunaren berme? Arauketa etiko baten beharra.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

• **Edukien antolaketa:**

Edukiak bide izango dira ikasleek konpetentziak eskuratu ditzaten. DBH 4. mailako Balio etikoak irakasgaiko edukiak ondorengo zazpi bloketan banatzen dira: 1) Eduki komunak; 2) Etika aro globalean; 3) Hausnarketa etika; 4) Justizia eta politika; 5) Balio etikoak, zuzenbidea, indarkeria politikoa; 6) Giza eskubideak eta ongizate-estatuak; ETA 7) Balio etikoak eta zientziarekin eta teknologiarekin duten lotura. Zazpi eduki bloke hauek "Edukien sekuentzia" atalean adierazitako unitate didaktiko desberdinen bidez landuko dira.

• **Jarduera motak:**

Ikasleen aniztasunari erantzuteko asmoz, askotariko jarduerak proposatuko dira:

- Hasierako jarduerak: helburu gisa ikasleen aurre-ezagutzak detektatzea eta ikasleak motibatzea helburu duten jarduerak dira.
- Garapenerako jarduerak: Ezagupen berriak garatzeko jarduerak dira. Atal honetan, beharrezkoa denetan, edukiak **zabaltzeko eta indartzeko jarduerak** proposatuko dira.
- Amaierako jarduerak: ikasitakoa aplikatzea helburu duten jarduerak dira.
- Transferentzia jarduerak: egoera jakin batean jasotako jakintza orokortu daitekeen jakintza dela erakusten duten jarduerak dira.

• **Erabiliko diren baliabideak:**

Baliabide analogiko, zein digitalak erabiliko dira saioetan zehar.

Baliabide analogikoak: ikasgelan erabiltzen den ohiko materiala (boligrafoak, arkatzak, borragomak, fitxak...).

Ikasleek ez dute testulibururik izango, ordea, irakasleak, jarduera eta apunteak sortzeko, zenbaitetan oinarri gisa hartuko du Vicens vives argitaletxearen *Balio Etikoak 4* testuliburua. Halaber, ondorengoak dira saioak aurrera eramateko irakasleak erabiliko dituen bestelako liburu edo materialetako batzuk:

- Wonder Ponder argitaletxearen material desberdinak (*Mundo cruel, Yo Persona, Pellízcame, Lo que tú quieras, ¿Hay alguien ahí?...*).
- James Rachels-en *Introducción a la filosofía moral* liburua.
- Peter Worley-ren *The if machine* liburua.

Baliabide digitalak: Google classroom (lanak partekatu eta jasotzeko), ikus-entzunezko materiala (bideoak, laburmetraiak, prentsa digitala...); ordenagailuak; arbela digitala; irakasle eta ikasleek sorturiko material digitala...

• **Ikasleen taldekatzea:**

Ikasleak taldekatzeko irizpide desberdinak erabiliko dira burutu beharreko jardueren ezaugarrien eta ikasleen betebeharren arabera; batzuetan banaka eta besteetan taldeka (binaka, talde txikian, talde ertainean edota talde handian) jardungo dutelarik ikasleek. Era honetan, modu autonomoan, zein kooperatiboan lan egiteko gaitasuna landuko dugu.

• **Espazioen eta denboren antolaketa:**

Saioak ikasgelan bertan egingo dira, bertako baliabide digitalak erabiliz.

Denborari dagokionez, saio hasiera erabiliko dugu aurreko saioetan egindakoa laburki gogoratzeko. Halaber, ikasleek zalantzarik ote duten galdetzeko tartea ere hartuko du irakasleak saio hasieran. Ondoren, saioaren nondik norakoaren azalpenak emango dira eta azaldutakoak egiteari ekingo diogu. Bukatzeko, saioaren itxieran, ikusitako garrantzitsuenaz azpimarratu eta dagokionean, ikasleei adieraziko zaie hurrengo saiorako egin beharrekoa.

• **Saioen nondik norakoa:**

Aurrera eramango diren saioetan bi motatako tarreak desberdinduko ditugu: tarte batzuk teorikoagoak izango dira eta besteak, aldiz, praktikoagoak. Tarte teorikoago horietan, irakasgaiarekin erlazionatutako kontzeptu eta auziak barneratuko dira (azalpen txikiak entzunez, filosofo desberdinen testuak irakurriz...). Honi filosofia ikastea deritzo. Ordea, ezinbestekotzat jotzen da filosofia ikasteaz gain, ikasleei filosofia egiteko aukera ere ematea. Horretarako, zeregin praktikoagoak gauzatu beharko dituzte ikasleek.

Ilido honetatik, saio batzuetan, Matthew Lipmanek proposaturiko haur filosofia egiteko tarte praktikoak izango ditugu ikasgelan; galdera filosofikoen bidez, hausnarketan oinarrituriko elkarrizketa komunitateak sortuz. Funtsean, ikasleek dituzten ideiak askatasunez adierazteko guneak sortzea litzateke helburua, ikasleen parte-hartzea bultzatuz. Parte-hartze hori emankorra izan dadin, ikasleek modu adeitsuan ekiten ikasi beharko dute, hau da, errespetuz, heldutasunez, txandak errespetatuz...

• **Irakasleen eta ikasleen eginkizuna:**

Ikasleak saioetan modu aktiboan jardutearen aldeko apustua egingo da (baita saio teorikoagoetan ere). Ezin dezakegu ahaztu hezkuntza-prozesuan ikaslea dela protagonista nagusia.

Irakasleak bitartekari papera izango du saioetan eta haren egitekoak izango dira ondorengo hauek: ikasleek egin beharreko lana sistematizatzea, haien ikaskuntza bideratzea, lan- eta ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzen dituzten jarduerak eta lanak prestatzea, ikasgelako lan-giroa zaintzea ikasleei lanak egitea errazteko, eta zehatz-mehatz azaltzea ebaluazio-prozesua eta ebaluatzeke erabiliko diren tresnak zeintzuk diren (lehenengo egunetik jakingo dute ikasleek nola ebaluatuko den irakasgaia).

• **Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak:**

Ikasleek egindako lana ebaluatzeak haien ezagutzak, trebetasunak eta zailtasunak zein diren jakiteko aukera ematen digu. Gainera, ebaluazioak irakasleoi ere eragiten digu; izan ere, ikasleek egindako aurrerapenetatik ateratzen dugun informazioa lagungarri izan dakiguke gure lana ebaluatzeke eta beharrezko diren aldaketak egiteko, bai unitate didaktikoetan aurkeztutako jardueretan, bai erabilitako metodologian ere.

• **Aniztasunaren trataera:** ikasleen behar eta gaitasun desberdinak kontutan hartuko dira uneoro (erritmo desberdinak, material moldaketak, zailtasunak...) Hortaz, premia berezidun ikasleen kasuan, orientazio mintegiarekin bat etorritik, dagozkion neurri zehatzak hartuko dira, edota dagozkion protokoloak aplikatuko dira.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]

<p>taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN <i>[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</i></p>	<p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN <i>[peso y valor de cada criterio de evaluación].</i></p>
<p>Honako tresna hauek erabiliko dira, nagusiki, ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko:</p> <p>Ikaslearen koaderno digitala (classroom). Ikaslearen koaderno-digitala erabiliko da norbanakoaren lana eta ikasgelan bidalitako zeregin guztiak ebaluatzeko. Koaderno hori ikasleak gelan egindako eguneroko lan eta ariketekin osatuz joango da, orriz-orri.</p> <p>Lanak eta azterketak. Ebaluazioan zehar ikasleek era desberdinetako lanak egingo dituzte, landutako gaietan sakontzeko asmoz. Lan horiek banaka zein taldeka burutuko dira, kasuan kasu euskarri desberdinak erabiliz (word dokumentuak, power point aurkezpenak...).</p> <p>Bestalde, landutako hainbat gairen inguruko kontrol eta frogak ere gauzatu daitezke ebaluazioetan zehar.</p> <p>Elkarrizketa filosofikoa. Elkarrizketa filosofikoa ebaluatzeko <u>ebaluazio taula</u> erabiliko da. (Ikus. 1. eranskina).</p> <p>Jarrera. Ikasleen jarreraren arreta jarriz honako alderdi hauek baloratuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Puntualitatea. - Etxerako lanak epean egitea eta lanen entrega egunak errespetatzea. - Lan egiteko materiala ikasgelara ekartzea. - Euskararen erabilera. - Hitz egiten ari den pertsonarekin kontaktu bisuala mantentzea (izan irakasle, zein ikasle). - Errespetua. 	<p>Ikaslearen koaderno-digitala: % 20.</p> <p>Lanak eta azterketak: %40. (Ebaluazioa gainditu ahal izateko ezinbestekoa izango da ikasleak <u>atal hau eginda</u> edukitzea: lanak entregatuta edota azterketak eginda).</p> <p>Elkarrizketa filosofikoa: %20.</p> <p>Jarrera: %20.</p>

- Gelako denboraren aprobetxamendua.

Saioa normaltasunez aurrera eramatea oztopatzen duten jarrerak negatiboki baloratuko dira.

Jarrera ebaluatzeko behaketa taula erabiliko da. (Ikus. 2. eranskina).

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

EGOKITZAPENAK:

Ikasleen berezitasunen arabera (Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak, atzeritik etorri berriak diren ikasleak, etab.) proba idatziak edo aurkezpenak ez dira guztiz berdinak izango, beharren arabera egokitutakoak izango dira.

AZKEN NOTA:

Ekaineko nota eskuratzeko, hiru ebaluazioen batez bestekoa egingo du irakasleak. Horretarako, ebaluazio bakoitzean ateratako nota erreala erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA:

1. Suspenditutako ebaluazioen berreskurapena:

Ebaluazioen bat suspendituz gero, gainditu barik geratu den ebaluazioa berreskuratzeko proba berriak (lana, azterketa...) prestatuko ditu irakasleak.

Proba horiek egin ahal izateko ikasleak klasean erabilitako materiala izango du eta beharrezkoa baldin bada, irakasleak prestatutako material gehigarria. Proba hauek egiteko, kontuan hartuko dira ikasleen beharrak, aniztasuna, erritmo desberdinak... Eta horren arabera jokatu da. Probak eta ebaluazioa ikasleen errealitatera egokituko dira.

2. Ekaineko ohiko deialdia:

Ekainean ikasle batek irakasgaia suspendituko duela ikusiz gero, bestelako aukera bat emango zaio, berriz ere izango duelarik aukera gainditu gabeko atalak gainditzeko.

*Oharra:

- Ebaluazioen berreskurapen proben nota ezin izango da 5 baino altuagoa izan.

AURREKO URTEKO GAINDITU GABEAK:

Ikasturte batetik bestera oinarrizko helburuak lortzen ez dituzten ikasleek, irakasleak emaniko lan edo txosten gauzatu beharko dute irakasgai pendientea gainditzeko. Lana entregatzeko data inplikatutako ikasleekin adostuko da eta data desberdinak zehaztuko dira lanaren jarraipena egiteko edota ikasleak dituen zalantzak argitzeko.

IKASTE IRAKASTE PRAKTIKAREN EBALUAZIOA:

Ebaluazioak igaro ostean, irakasgaiko irakasleak hausnarketa egingo du zer hobetu daitekeen, zer hutsune egon diren... ikusteko. Hala, beharrezkoa den kasuetan, irakasteko eta ikasteko prozesuan hobekuntzak

jarriko dira abian.

OHARRAK / OBSERVACIONES

HEZKIDETZA:

Hezkidetza proiektua ikastetxean gauzatzen ari dela kontutan harturik, eskolak berdintasunean oinarritutako sozializazioa bermatu behar du eta pertsonen garapen integrala ahalbidetu, identitate guztiak errespetatuz. “Balio Etikoak” irakasgaiaren hezkidetzarekin loturiko gaiak landuko ditugu hainbat unitate didaktikotan, hain zuzen ere, 3. eta 4. unitate didaktikoetan, hurrenez hurren, “Giza Eskubideak” eta “Gizartea eta justizia” deiturikoetan.

Bestetik, ikasleen jarrera ere erabat erlazionaturik dago hezkidetza proiektuak bultzatzen dituen ildoekin: ikasleen arteko elkarbizitza osasuntsua, errespetua... Beraz, ildo hauek kontutan hartuko dira ikasleak ebaluatzerako orduan.

AGENDA 2030:

Agenda 2030 proiektua ikastetxean gauzatzen ari dela kontutan harturik, proiektuaren eta irakasgaiaren arteko zubi-lanak egingo dira. Zehazki, irakasgai honetan lantzen diren 3. eta 6. unitate didaktikoek, “Giza Eskubideak eta “Etika, zientzia, teknika” deiturikoek, erlazioa dute Agenda 2030eko Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIHak).

HNP:

Hizkuntza Normalkuntza Planeko irizpideak jarraitu dira programazio hau gauzatzerako orduan. Hala izanik, euskararen erabilera ebaluatuko da emango diren saio desberdinetan, bai jarreraren baitan (jarrera ebaluatzeko ebaluazio taulan isladatzen da bezala), zein lanak edota ahozko aurkezpenak gauzatzerako orduan.

IRAKURKETA PLANA: Irakurketa plana deritzon ekimenaren helburua gure ikasleen irakurmena hobetzea eta irakurlezaletasuna bultzatzea da. Bide honetan bat egiteko asmoz, geure irakasgaiaren bidez helburu honekin loturiko jarduera desberdinak proposatuko dira. Horretarako, testu desberdinen irakurketa bideratuko da ikasgelan eta jarduera desberdinak proposatuko dira: irakurketa partekatuen teknikaren bidez testuak irakurri eta ulertzea, testu desberdinen ideia nagusiak azpimarratzea, irakurritako testu baten inguruan iritzia ematea, testu idatzi batetik abiatuz elkarrizketa filosofikoa sortzea...

1. ERANSKINA:

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOA	BAI 3	ERDIZKA 2	EZ 1
<p>1. JARRERA</p> <p>1.1 Hitz txandekiko errespetua.</p> <p>1.2 Entzute aktiboa (esandakoak birformulatzeko gaitasuna).</p> <p>1.3 Solasaldian parte hartzen duetenei aurpegira begiratzea eta hitz egitean taldeari zuzentzea.</p> <p>1.4 Besteekiko adeitasuna.</p> <p>1.5 Gorputz lengoia.</p> <p>25%</p>			
<p>2. ARGUDIOEN KALITATEA</p> <p>2.1 Koherentzia (ondorioak logikoki ondorioztatzea premisetatik).</p> <p>2.2 Argudioak sostengatzeko gaitasuna (adibideen eta iturrien erabilpena).</p> <p>2.3 Argudioak gaiarekin bat etortzea (gaitik ez urruntzea, ekarpeneak gaian sakontzen laguntzea).</p> <p>25%</p>			
<p>3. PARTE HARTZEKO GAITASUNA/ ADIERAZPENA</p> <p>3.1 Hizkuntzaren kalitatea (kontzeptu zehatzak, euskara maila).</p> <p>3.2 Norbere pentsamendua argitasunez azaltzea.</p> <p>3.3 Ahots tonoa.</p> <p>25%</p>			
<p>4. ARAZO FILOSOFIKOAREKIKO IKUSKERA</p> <p>4.1 Solasaldiaren arazo filosofikoa(k) identifikatzea.</p> <p>4.2 Problematizatzea eta arazo berriak azaleratzea.</p> <p>4.3 Arazoak konpontzen ahalegintzea eta ondorioak ateratzea.</p> <p>4.4 Arazoen aurrean iritzia aldatzeko gaitasuna.</p> <p>25%</p>			

2. ERANSKINA:

JARRERA	BAI ₂	ERDIZKA ₁	EZ ₀
1. Klaseen hasiera puntuala ahalbidetzen du. 12.5%			
2. Etxerako lanak egiten ditu. 12.5%			
3. Lan egin ahal izateko materiala ekartzen du. 12.5%			
4. Euskaraz aritzen da ikasgelan. 12.5%			
5. Hitz egiten ari denarekin kontaktu bisuala mantentzen du. 12.5%			
6. Errespetua adierazten du ikaskide, zein irakaslearekiko. 12.5%			
7. Gelako denbora aprobetxatzen du. 12.5%			
8. Bere jokabidea lagungarria da klaseak normaltasunez aurrera eramateko. (Ez ditu klaseak oztopatzen). 12.5%			